



Fitxa teknikoa *Ez dut txerrikumea izan nahi. Eneko Etxegarai/Eduardo Rodríguez. Denonartean. 2015*

Liburuaren aurkezpena

Jaio eta oinarrizko gaitasunak beteta gero, neska-mutilek beraien identitate bila ibilbide bat egin behar dute. Liburuaren txerrikumeak ere halako ibilbidea egiten du; zaldia izan nahi du lehendabizi, ahuntza gero, oiloa, ahatea... Bidaia penagarri baten buruan, lortzen du bere nahiak eta itxaropenak egokitzea eta azkenean bere izaera osatuko du.

Nola kontatu

Edozein adin tartean erabili daiteke ipuin hau, baina 6-7 urteko neska-mutilek bereziki gozatuko dute ipuin honen edukiaz. Ipuinaren egitura erritmikoak ahalbideratzen ditu egoera barregarriak eta txerrikumearen inguruan gauzatzen den umorezko trataerak animaliarekiko konplizitatea sortzen du haurrengan.

Ilustrazioen eta testuaren arteko orekari esker, ipuinaren kontaketa erraza bilakatzen da; testua irakurri bitartean ilustrazioak ikusiko dituzte haurrek eta horietan bistaratuko dituzte testuak adierazten dituenak eta ilustrazioek eranstean dizkioten giroa eta detaileak.

Ikus-entzunezko aukera ere erabili daiteke, beheko esteka erabiliz.

<https://www.youtube.com/watch?v=WgQxNqtRFyQ>

Proposamenak bideratzen

Handitan zer izan nahi duzu?

Bakoitzaren espresioaren bila, zer eta zergatik izango ditugu kontutan...

Bere burua handitan nolakoa ote den irudikatuko du haurrak: ahoz gora arrazonamenduak bideratuko ditu, edota idatziz; guzti honi handitako bere autorretratu bat gehituko dio.